

IRAGARKIAK

Beste iragarki ofizial batzuk

EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN ETA INGURUMEN SAILA

2512

IRAGARKIA, 2023ko maiatzaren 16koa, Industria Administrazioaren Arabako lurralde-ordezkariera, zeinaren bidez argitara ematen den, lehia posible baten ondorioetarako, Arabako Aiara eta Laudio udal-mugarteetan, Ferosca I parke eolikorako alde zurreko administrazio-baimenaren eskaera.

Maiatzaren 28ko 115/2002 Dekretuak 4. artikuluan ezarritako ondorioetarako (115/2002 Dekretua, maiatzaren 28koa, Euskal Autonomia Erkidegoan parke eolikoetako energia eolikotik energia elektrikoa ekoizten duten instalazioei baimena emateko prozedura arautzen duena), Ferosca I parke eolikorako aurkeztutako alde zurreko administrazio-baimenaren eskaera iragartzen da:

- Eskatzailea: Ferosca Wind, S.L. (IFK: B10967594).
- Tartean dauden udal-mugarteak: Aiara eta Laudio (Araba).
- Haize-sorgailuen kopurua: 6.
- Instalatu den potentzia gordina: 27 MW.
- Ukitutako azaleraren poligonalaren koordenatu geografikoak:

ETRS89 HUSO 30		
Erpina	UTM x	UTM y
1	497.726	4.775.967
2	498.430	4.776.858
3	500.616	4.775.081
4	498.631	4.771.367
5	499.468	4.769.924
6	498.147	4.769.490
7	496.751	4.771.151
8	497.182	4.773.077
9	498.707	4.775.108

Horiguztia argitara ematenda, eta hogeieguneko epea ematenda, iragarki hau 115/2002 Dekretuaren 4. artikuluan aipatzen diren aldizkarietan argitaratzen den egunetik aurrera zenbatzen hasita, parke eoliko hori ezarri eta ustiatzeko interesa duten pertsona fisiko edo juridikoek aipatutako dekretuaren 3. artikuluan xedatutakoaren arabera lehia-eskabidea aurkeztu dezaten Arabako Industria Administrazioaren Lurralde Ordezkaritzan, izapidetze elektronikoaren plataformaren bidez, GE-Y prozeduraren bidez, hemen: <https://www.euskadi.eus/prozedura/ge/web01-a2energia/eu>

Vitoria-Gasteiz, 2023ko maiatzaren 16a.

Industria Administrazioaren Arabako lurralde-ordezkaria,
PEDRO RODRÍGUEZ DÍAZ.